

2116652 jarduera

1- Entzun aurretik




1.1 Euskaldunei buruzko topikoak

Jon eta Jone, besteak beste, euskaldunari buruzko topikoez arituko dira gaurko atalean. Ikasgelan partekatzeko gogoeta egingo duzu, gaiari buruzko galderari erantzunda.

- Nolako irudia daukate euskaldunei buruz Euskal Herritik kanpo?
- Zer da gehien gogaitzen zaituena irudi horretatik?
- Eta gehien gustatzen zaizuna?
- Pasadizorik izan al duzu euskaldun izatearekin lotuta?






1.2 Topikoak alderatzen

  Komentatu zure ikaskidearekin  ariketako galderari erantzun diezuna. Zertan zaudete ados eta zertan ez?

2- Entzun bitartean

2.1 Euskaldunez diote...

   Jon eta Jone euskaldunei buruz esaten direnak aipatu dituzte eta horiei buruz zer pentsatzen duten ere komentatu dute. Aukeratu erantzun egokia.

Jonen lagun batek dio euskalduna dela:

- Sabela elikatu baino lehen, bihotza elikatzea aukeratu duen herria
- Burua elikatzeaz arduratu ordez, sabela elikatzea aukeratu duen herria
- Sabela beteta burua elikatzen jakin duen herria

Telebistan eta zineman euskaldunaren irudia emateko:

- Euskaldunak ez direnak erabiltzen dituzten molde tipikoak erabiltzen dituzte
- Euskaldunek sarritan erabiltzen dituzten ohiko esamoldeak aukeratu dituzte
- Euskaldunaren benetako hizkera adierazten duten moldeak baliatu dituzte



2116652 jarduera

Jonerentzat, topikoak dira:

- Herrialde baten irudia azaltzeko modu egokia
- Jendearengana hurbiltzeko aitzakia
- Herri jakin baten irudia barregarri uzteko tresna penagarria

Euskaldunok geure buruaz gehien saltzen dugun irudia, Jonen ustez

- sukaldariak, kirolariak eta historiaren zulo beltzean galtzen den herriarena
- euskaldun tripazainak eta musugorrien irudia
- kirolariak, borrokalariak eta leialtasunaren irudia

2.2 Azaldu zer diren

   [Entzun berriro elkarrizketa eta saia zaitez zure hitzetan azaltzen bertan esan dituzten honakoak:](#)

Espainolak eta kaxeroak

Kaleidoskopioaren metafora



2116652 jarduera

3- Entzun ondoren

3.1 David de Jorge euskaldunei buruz



Irakurri David de Jorge sukaldariak euskaldunei buruz esan ohi diren topikoez zer dioen. Bildu zerrenda batean aipatu dituen topikoak eta adierazi horietako bakoitzarekin ados dagoen ala ez, ondoan edo idatziz.

David de Jorgeren ustez,

Euskaldun guztiak sukaldari onak dira

-
-
-
-
-
-
-



David de Jorge, 43 urte. Sukaldaria:

Hasteko, janariari buruzko topikoa egia da: bazkaltzen hasi garenetik hasten gara afarian pentsatzen. Gezurra da euskaldun guztiak sukaldari onak garela, gure sukaldeetan sukaldari penagarri asko dago-eta. Txortan egiten ez dugunarena, tira, tarteka. Itxiak garela? Segun eta norekin. Javier Clementeren antzerako jenio txarrekoak garenaren errua eguraldi txarrak dauka. Leialak garela diote; baita zera ere!

Ezjakin emozionalak omen gara... gainditzen ari garen zerbait da. Emakumeek agintzen dutela... eta eskerrak! Emakume euskaldunek Euskal Herritik kanpora larrutan

gehiago egiten dutenari buruz... nire emazteak, bederen, egia dela dio. Kanpotarrak ez ditugula atsegin ere esan ohi da; eta egia da, baldin eta ergelak, aspergarriak edota zakarrak badira: bizitzaz gozaten dakien jende atsegina eta autoaren maletategia ardoz betea dakarrena, ordea, ongi etorria da.

Azkenik, oso fededunak garela diotenentzat: begira, hemen Santa Txuleta eta Asisko Bisigu Deunean besterik ez dugu sinesten. Amen.

[XL Semanal](#) (Euskaratua)

3.2 Gainerakoak nolakoak dira?



Eta katalanak, galiziarrek, andaluziarrek nolakoak dira? Egizue binaka aurreko testuaren antzeko deskribapena, haiei buruz esaten diren topikoak eta ezagutzen duzuen errealitatea uztartuz.

3.3 Topikoen zergatia



Batzuek uste dute jaioterriaren arabera nortasun ezberdinak ditugula, horregatik sortu dira topikoak.

Zer uste duzu zuk? Ados zaude ala ba ote dago bestelako arrazoirik herrialde bati buruzko topikoak aireratzeko?